

Imanol Alvarez

IRAKASLEA

Prostitutak eta ostruka

Etxe ondoan aldaketa ugari jasan ditugu azken urteotan: aurrez aurre eskola, azpian eliza ebanjelikoa, haraxe parkea, haraxeago eliza katolikoa, polikiroldegia ere berton... “Jasan” diot, Bilboko erdigunean bizi arren hamarkadetan izan dugun bake inbidiagarria zapuztu digutelako aldaketok. Egia da apartamentuaren balioa merkatuan asko igo dela, baina igotze hori ez dut nik disfrutatuko. Neuzkan lasaitasuna eta balkoira biluzik irten ahal izatea, aldiz, bai, neuk disfrutatzen nituen. Ingurunean betidanik dugun sexu-zerbitzuetako gremioan ere egon da aldaketarik aspaldion. Garai batean ia denak ziren Espainiako Estatuko adin guztietako andreak, gero neska heroinazaleak edota trabestiak –honela esaten zitzairen–, gaur egun gehien-gehienak afrikar beltz gazteak.

Auzokide batzuk buru-belarri dabil-tza prostitutak nola edo hala bota nahian: eskola dagoela, eliza dagoela... Argazkiak eta guzti ateratzen dizkiete udalari bidaltzeko –ulertzen ez dudana, jakin denok baitakigu hor daudela–. Protesten ondorioz edo, udaltzainek batzuetan gorago joateko agintzen diete, etxeetatik apur bat urrutiratzearren. Beste batzuetan, berriaz, beherago joateko, goiko auzo dotorekoek ere beraien etxeetatik ez omen dituztelako ikusi ere egin nahi.

Antzeko kontuan gertatzen ei dira beste leku askotan, Euskal Herrian zein atzerrian. Hainba-tek emakumearen duintasun eta esplotazioa aipa-



IÑIGO AZKONA

tzen ditu eta bezeroak zigortzeko ere eskatu. Honen guztiaren atzean zinismoa eta hipokresia antzematen ditut. Batzuek ez dutelako erre-alitatea ikusi nahi eta –askotan zerbitzuon erabil-tzaile izanda ere– beraien etxeetatik urruti nahi dutelako, inor enteru dadin beldur edo. Besteek, emakumeak –langileak oro har– kasu gehienez duintasun handirik gabe eta soldata izena ere merezi ez duten soson truke lan egiten duten arren, prostituzioaz baino ez direlako kezkatzen.

Beharrian oro –fisiologikoak barne– merka-tu-gai bihurtzen den gizarte batean –ordaindu beharreko komunak ere baditugu...– zer arazo dagoke, bada, sukaldariak, tabernariak eta abar dauden bezalaxe, sexu-grina dugunerako prostitut(o)ak egotearekin?

Erantzuna sinplea da: moralarekin egiten dugu topo, moral erlijiosoarekin alegia, zeinak sexuarekin zerikusirik duen guztia tabu bihurtu duen.

Gizarte idilikoa, jakina, dena izango litzateke justuagoa eta berdintzaileagoa. Zerbitzuak publikoak izango lirateke, doakoak alegia, eta, agian, denok izango genituzke txortan edota maitemintze-kontuetan aritzeko lagun ideala ere.

Baina, errealtatea tematia da eta, gauden gaude-nean, hobe genuke moralina gainetik kendu eta ostrukarena ez egin. Azken batean, gauza arrisku-garriagoak irakasten dira elizetan eta auzoek pro-testarik ez. Hamaika ikusteko jaioak gara! ■

« Beharrian oro merkatu-gai bihurtzen den gizarte batean zer arazo dagoke, sexu-grina dugunerako prostitut(o)ak egotearekin? »

TXANDAN

Andoni Mujika

Zer diluitu?



HUHEZI fakulta-tean, *Euskal Kultur-gintzaren Transmisioa*

deritzon gradu-ondokoaren baitan, gure izaera, kulturaren transmisiorako estrategiak eta antze-rakoak teorizatzen eta eztabaidatzen ari dira. Eztabaidak eztabaida eta teorizazioak teorizazio, sukaldara jo dut, lapi-ko artera hain zuzen, nire korapiloa askatzeko errezeta bila. Eta aurkitu dut.

Aspaldi, ume-ume nintzela, gure amaren lagun jakintsu batek esan zuena, ez nekien zergatik, indartsua iruditu zitzaidan orduan, eta gaur, garai-garaikoa bihur-tu da. Orintsu konprenitu dut, zergatik zuen indar

hori Manterolaren lapikoaren metaforak.

Kontua da gure izaera, eta beraz gure kultura, ez dadila beste kultura handiagoen ure-tan urtu. Utzikierarik ez egitea. Etorkizuna, inteligentzia finetan jokatzeko dugu. Osagai arrotzak, atzerrikoak, gehi-tzen dizkiogunean gure jakien lapikoari, geurea pizteko eta biziberritzeko balio dezatela, interesgarriago bihurtzeko. Kanpoko espeziak ez dezala tradizioak dakarren janariaren esentzia iruntzi. Kanpoko espeziari lekua egin behar diogu gure etxeko errezetarioan, bera diluitu dadin geurean, eta horrela, munduan bizirik egoten jarrai dezagun, geure gatzek. Isolamendu nahiz utzikierarekin jai dugu. ■